

# 1989 eta 1990 URTEETAKO LEGE LINGUISTIKO SOBIETARRAK

*Jacques Maurais*

1988 eta 1989an, Sobiet Batasuneko zenbait errepublika federatuk beren konstituzioa aldatu egin zuten bertan hizkuntza ofizial bat definitu ahal izateko eta , 1989 urtean zehar, bederatzi errepublikak onartu dituzte legeria linguistikoak. Honako hauek: Estoniak, Lituaniak, Letoniak, Tadjihistanek, Kazakhstanek, Moldabiak, Uzbekistanek eta Ukraniak. Bielorrusiak besteen ereduari ekin zion hurrengo urtean. Eta, 1990 urtean bertan, gobernu sobietarra errepublika desberdinen legeria linguistikoak biltzen ahalegindu zen lege orokor bat onartuz.

Ez da gure helburua, noski, honelako artikulua labur batean zehatz mehatza agertzea hain ugariak diren legeria testuen preskripzio guztiak. Ondorengo alderdien aurkezpen batekin moldatu beharko dugu beraz, ikuspegi soziolinguistikoari helduko gaitzaizkiolarik juridikoari baino: hizkuntza amankomunaren arazoa, irakaskuntza hizkuntza, lan hizkuntza, legeria kompetentzien banaketa gai linguistikoetarako, zerbitzu hizkuntza, "corpus planning"aren inguruko zenbait arazo (hizkuntz eredu, alfabetoa, hizkuntz kalitatea) eta azkenik, lege linguistiko hauen ezarpen modalitateak hain zuzen ere.

## **1- Hizkuntza amankomunaren arazoa:**

Sobiet Batasuneko terminologia ofizialean aspaldiko ohitura da "nazionalitateen arteko harremanen hizkuntza" esamoldea erabiltzea errusieraz hitzegiterakoan. 1990ko Apirilaren 24ko lege sobietarrak, errusiera ESSBko hizkuntza ofiziala dela baieztatzeaz gain, "nazionalitateen arteko harremanetarako bidea" bezala definitzen du.

Hizkuntza amankomunaren arazoari bi ikuspegi desberdinetatik heldu behar zaio: batetik, gobernu zentralarekin eta errepublika desberdinen arteko harreman hizkuntza; bestetik, errepubliken barneko komunikazio interetnikoen hizkuntza.

Moskuko gobernu eta errepubliken arteko harremanei dagokienean, errusieraren aukeraketa bere buruz gailentzen da: 1990ko lege sobietarrak zera adierazten du: gobernu zentralarekin eman beharreko komunikazioa errusieraz egin behar dela, baina errusiera edo bi aldeek onzat emandako hizkuntza bat erabil daitekeela errepubliken arteko harremanen kasuan. Preskripzio berdinak aurkitzen ditugu Lituanian, Ukranian eta Bielorrusian, eta antzeko zerbait Uzbekistanen, Kazakhstan eta Tadjikestaneko legeak errusiera bakarrik aipatzen dute errepubliken arteko harremanetarako baina, zorionez, Kirghiziakoak kirghiziera-errusieraren elebitasuna ezartzen du kasu guztietarako, baita atzerriko gobernuarekin komunikatzeko ere (oraingo honetan, "harreman internazionalerako hizkuntzetako bat" bezala definituta dago errusiera).

Hala ere, arazorik interesgarriena, bere garrantzia politiko eta soziala dela eta, errepubliken barneko nazionalitateen arteko harremanetan erabili beharreko hizkuntzarena da. Lege linguistikoek desberdintasun nabariak eskeintzen dituzte; Kazakhstanen adibidez eginkizun horretarako izendatuta dago errusiera, eta Ukranian berriz hizkuntza guztiak erabil daitezke nazionalitateen arteko harremanetarako.

Hizkuntza amankomun bat aukeratzearen arazoak, beraz, bereziki erakusten ditu gizarte baten barruko botererako borrokak zeren, behin eta berriz esan dugun bezala, faktore ez-linguistikoek badute zerikusi handia antolakuntza linguistikoan. Honela, jacobinismo linguistikoaren arazoa agerian geratzen delarik

## **2-Irakaskuntza hizkuntza**

1959an, errepublika federatuek eta errepublika autonomoek legeak onartu zituzten hezkuntzaren erreformaren inguruan, gurasoei seme-alaben irakaskuntza hizkuntza aukeratzeko eskubidea ematen zien legea besteak beste. Honez gain, seme-alabak eskola errusiarrera bidaltzea erabakitzen zuten guraso errusfonoek zera aukeratu behar zuten: bertan beren ama hizkuntza ikasiko zuten ala ez. Honela, gurasoek bi aukera zeuzkaten bere etorrera etnikoari uko egiteko, lehendabizi haurrak eskola errusiarrera bidaliaz, bigarrenik, beren ama hizkuntza ikastea galeraz.

1989 eta 1990an onartutako legeek ez dute inola ere egoera hau aldatzen. Aukeratzeko askatasun nagusi da oraindik: honela, lege sobietarrak dio "ESSBko hiritarrek irakaskuntza hizkuntzaren aukera libre bermatu dute"; aukeraketa guraso edo tutoreek egiten dute seme-alaben izenean. Errepublikak antzeko xedapenak dituzte. Esan dezagun baita ere, aukera libre zehazki aipatzen ez den kasuetan, Estoniako legearen arabera, haurraren ama hizkuntza bakarrik bermatzen bait da irakaskuntza, aukera hori praktikan egon bada.

Alabaina, lehen baino zehatzagoak dira betebeharrak errepublikako hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionean, hizkuntza hau irakaskuntza hizkuntza ez den eskolatan. Honela, Letoniako legearen arabera "Letoniera irakatsiko da Letoniako errepublikako irakaskuntza zentru guztietan bertako irakaskuntza hizkuntza beste hizkuntza bat bada ere". Antzeko xedapenak ematen dira beste errepubliketan. Hizkuntza azterketak gaitzitu behar dira, errepublika guztietan, bai ikasketen amaierako titulua jasotzeko, bai goi mailako ikasketetarako sarrera egiteko.

Bi errepublikak bakarrik onartzen dute nazionalitate titularraren hizkuntza ikasteko derrigortasuna gaitzitzeko posibilitatea zenbait kasutan: Ukrainiaren kasuan, oso orokorrean adierazita dago posibilitate hau; Bielorrusian, ordea, egonaldi labur batean daudenei bakarrik dagokie posibilitate hau. Baina ESSBko legeak orokor bihurtu du salbuespen hau: "Errepublika federatu edo autonomo baten lurraldean tenporalki bizi diren ikasleek errepublikako hizkuntza ikasteko salbu egon daitezke. Honelako salbuespen neurria errepublika federatu edo autonomoaren esku dago. Zenbait errepublikaa, beren legerian adierazi nahi izan dute baita ere errusieraren irakaskuntzaren derrigortasuna nahiz beste batzuk inolako aipamenik ez egin (adibidez, Estonia, Letonia, Lituania). Errusierak, piskanaka, irakaskuntzako derrigortasunaren izaera gal ez dezan dio seguru aski honako hau ESSBko legeak: "ESSBko hezkuntza beste hizkuntza batean ematen duten zentruetan bermatuta dago ESSB lurraldeko harreman interetnikoen betebeharrari erantzuteko gaitasunaren neurria".

Besterik ere erants genezake: irakaskuntza bermatuta dagoela eskola elebakarretan zenbait errepublikatan. Honela da Estonian eta Moldavian. Beste errepubliketan, egoera ez da hain garbi azaltzen: honela. Lituaniako "ukaziera"ren 8 artikulua zera dio "errepublikako biztanlego alofonoarentzat, berak hala nahi izanez gero, beharrezko baldintzak sortuko dira eskolaurreko zentruak, eta hezkuntza orokorreko gelak eta eskolak antolatu ahal izateko (...)".

## **3-Lan hizkuntza**

"Lan hizkuntza" esamoldea ia ez da ageri 1989 eta 1990ko lege linguistiko sobietarretan. Bere parekide errusiarrek Bielorrusia, Kirghizia, Ukraina eta ESSB legeetan bakarrik aurki daitezke. ESSB kasuan, esamolde honen esanahia zabalagoa da, gobernu eginkizunei bait dagokie. Beste guztietan, kontu liburuei dagokien hizkuntzari lotzen zaio esamolde bat bakarri aurkitu ahal da; "gestiogintzako hizkuntza" bezala izul genezake.

Xehetasun gehiegitan ez sartzearen, ESSB eta Lituaniako legeen xedapenak aipatuko ditugu hemen soilik.

Lege sobietarraren arabera, errepublika federatuetan kokaturik baina Moskuko agintearen mende dauden entrepresa, instituzio eta erakundeetan gestioa errepublikako hizkuntzari eta errusieran egin behar da. Hurrengo eranskinak dioenez errepublika federatu eta autonomoetako gobernu organo, entrepresa, instituzio eta erakundeen gestioa aipaturiko errepublikako hizkuntzan egingo da "kontutan hartuz hiritarrek beren ama hizkuntza eta ESSB herrietako hizkuntzak erabiltzeko eskubidearen aurka ez joatearen printzipioa". Bestalde, 8 artikulua hizkuntzan oinarrituriko edozein diskriminazio mota debekatzen du lanpostu eskeintzetan, "salbuespen dira ESSB legeriak edo errepublika bateko legeriak hizkuntzen ezagutza derrigorrezkotzat jotzen duenean zenbait lanpostutan aritzeko". Xedapen hauek, 18 artikulua bereziki, errepublika federatuen legerian hainbat aspekturi aurre egiteko onartuak izan direla begi bistan dago, lehen kasua izanik Lituaniak aurreko urtean onartu zuena.

1941an eta berriro 1944an, Lituaniako gobernuak lituaniera ikasi beharra inposatu nahi izan zien langile inmigranteeri (Nota: "Iadanik 1941an eta 1944an berriro ere, Lituaniako errepublikako ministrari kontseiluak Lituaniara lanera zetozen langile guztiak lituaniera ikastera behartzen zituzten dekretuak onartu zituen. Honetarako, bideak jartzen ziren, ikastaroak antolatzen ziren. Zoritxarrez, gutxi ahalegindu ziren hizkuntza ikasten, eta urteak pasa ahala, ahaztuta geratu zen guztia"). 1989ko Azaroaren 3ko legeak lituanieraren ezagutza inposatzen du Lituaniako hiritartasuna lortu ahal izateko. 1989ko legeria linguistiko lituaniarrek era berean derrigorrezkotzat jotzen du, 1992 urtetik aurrera, lituanieraren ezaguera zenbait kuadro lanpostu betetzeko, lanpostu hauen zerrenda 1989ko Uztailaren 1 baino lehen osatuta geratu delarik. Bi urtetako epea ematen zaie entrepresi beren tratuen gestioa lituanierara bihurtzeko. Publikoarekin harremanetan egongo diren langilego eta kuadroek lituanieraz jakin behar dute, eta beharrezko gertatzen denetan, beste hizkuntza bat. Ministeritzek eta entrepresen lituanierazko ikastaroak antolatu behar dituzte hizkuntza ez dakiten langileentzat. Interesgarria da zera azpimarratzea: 1989ko Otsailaren 20ko dekretuak adierazten duela Lituaniar kokaturik baina Moskuko agintearen mende dauden entrepresa eta ministeritzek ere (armadak ezik) osatu behar dutela lituanieraren ezagutza eskatzen duten lanpostuen zerrenda, eta biztanlegoari hizkuntza horretan erantzuteko gai izan behar dutela. Lituaniako Lehendakari ohiak, V. Astrauskasek, hala ere zera esan zuen, azkeneko kasu honetan ez zela egoera gehiegi bortxatu behar: "Orokorrean, lan kolektibo bakoitzak erabaki behar du nola eman gestiogintza lituanierara bihurtzeko pausua, bereziki gobernu sobietarraren menpe dauden entrepresetan".

Argi dago beraz legeria linguistiko lituaniarrek gobernu sobietarraren konpetentzien eremuan eskuhartzen duela. Baina ez da bakarra.

#### **4- Legeria kompetentzien banaketa**

1989 eta 1990 an errepublika federatuek onartutako lege askok zera adierazten dute, zenbait xedapen jomugatzat dituzten erakundeek "menpekotasun hierarkikoa alde batera utziaz" aplikatzen direla; esamolde honen arabera, aipaturiko erakundeek legeria bete beharra daukate, nahiz eta administratiboki Moskuko gobernuaren menpe egon. Hau oso argi ikusten da Lituaniako legerian (Nota: Hona, adibide gisa, 1989ko Otsailaren 20ko dekretuaren 6 artikuluko atal bat: "Ministeritzek, hiri eta distritoetako bulego eta sobietak 1989ko Uztailaren 1a baino lehen prestatu eta baietsi behar dute, Segurtasun Soziala eta Lan ministeritzen onespenerekin, Lituaniaren ezagutza derrigorrezkoa duten langile buruzagien lanpostuen zerrenda entrepresetan, bulego eta erakundeetan. ESSBn mende dauden entpresa eta erakundeek osatu egin behar dute, epe eta eredu berean, Lituaniako hizkuntza derrigorrez ezagutu behar duten langile buruzagien lanpostu zerrenda. Hauei, lituanieraren ezagutzaren betebeharrak 1992ko Urtarrilaren 1tik aurrera aplikatuko zaizkie. Baina hau ez dagokio armadari. Beste zenbait errepublikatako legeriek - gutxi batzuren kasua- zera eransten dute, xedapenak ez dagozkiela arlo batzuei adibidez, armadaz gain, trenbideak eta mugazaintza ere bai). Baina gauza berbera gertatzen da baita ere beste errepubliketan.

1990ko Apirilaren 24ko lege sobietarra gobernu zentralaren botereen bortxa hauek zuzentzen ahalegintzen da bere 2 artikuluan:

"ESSB eta bere goi mailako gobernu organuen kompetentzietan dagokie ESSBko herrien hizkuntzen erabilpena eta hedapenaren legeriaren alorrean.

"Printzipioen ezarpena eta legeriaren xedapen orokorren zehaztapena ESSBko herrien hizkuntzen erabilpena eta hedapenari dagokienean.

"Estatus juridikoaren zehaztapena eta ESSBko lurraldean hizkuntza amankomunaren erabilpen eremuen finkatzea, Sobiet Batasunean zeharreko komunikazio beharren arabera.

"Errepublika federatu eta autonomoek, ESSBko kompetentzien eremutik at, bere kabuz erabakitzen dute beren lurraldeko hizkuntzen erabilpena eta hedapenari dagokien legeria, beti ere bertan bizi diren herrien interesak kontutan hartuz":

ESSBn onartutako lege linguistiko berriek jurisdikzio arazo asko sor dezaketen edukiak dauzkate beraz.

#### **5- Zerbitzu hizkuntza**

Orokorrean, lege linguistikoek zerbitzuak bere hizkuntzan jasotzeko eskubidea bermatzen diote hiritarrari (kontsumitzaileari). Estatu Baltikoek ere hiritarrak bere hizkuntzan zerbitzatuak izan daitezzen aukera aurrikusi dute, eta elebitasunezko betebeharrak finkatu dituzte; honetan, Letoniaren kasua berezi samarra da eta zehatzago azaltzea eskatzen du.

Letoniaren xedapenak zerbitzu hizkuntzaren alorrean beste errepubliketakoak baino zorrotzagoak dira alegia. Legeak, Estatuarekiko komunikazioetan, aukera librea bermatzen dio hiritarrari letoniera eta errusieraren artean, eta elebitasuna inposatzen dio biztanlegoarekin kontaktoan dagoen langilegoari. Komunikazio hizkuntza ez dagoenean finkaturik, Estatuak, entrepresak, instituzioek, erakundeek eta beren enplegatutik lehendabizi letonieraz egiten diote hiritarrari, ondoren bi alderdier komeni zaien hizkuntzan. Honez gain, legearen arabera, gobernu erakundeek eta zerbitzu entrepresak ordaindu egin beharko diete hiritarrei beren langilegoak letoniera edo errusiera ez jakiteagatik eragindako kaltea; erakunde eta entrepresak ere ordaina jaso

dezakete kaltetu dituen funtzionatu edo enpleguaren eskutik: "Zerbitzu instituzio edo erakundeek, hiritarrek kontaktoan dauden funtzionari edo enpleguak dauzkatelako, ordaindu egin beharko diote letoniera edo errusiera ez ezagutzeagatik funtzionari edo enplegu batek eragin dioten kaltea. Legeak aurrikusi dituen kasuetan, instituzioak edo enpresak errudunarengandik jaso dezakete ordaina": Eta hizkuntzaren aukera librea egiteko eskubidearen bortxaketak auzitegiara eraman daitezke.

Letoniako legeak beraz, ez ditu bereizten pertsona eta lanpostua beste herri batzutan gertatzen den bezala, hauetan lanpostuak bait dira pertsona elebidunak bete beharrekoak bezala definiturik agertzen direnak.

Orain dauden bezala, 4,9 eta 22 artikulua orokorregiak gertatzen dira dudarik gabe. Elebitasunaren ezarpena letoniera bultzatzeko bide bezala Letoniaren egituraketa demografikoak esplikatu dezake. Izan ere, Letoniarrak beren errepublikako biztanlegoren %52a besterik ez dute osatzen eta hauen artean %80 elebidunak dira maila desberdinetan ( %68 erabat elebidunak dira); gutxiengo errusiarra, biztanlegoaren %34, %21,1an bakarrik da elebiduna, eta zenbait hiritan ( Riga, Daugavpils, Liepāja, Rēzekne), letonieradun biztanlegoa kopurua gainditu egiten du (1989ko errolda). Baldintza hauetan elebitasuna inposatzeak zera esan nahi du lehendabizi: errusieradunak letoniera ikastera behartzea; letonierari benetazko gehiengoaren hizkuntza estatusa itzultzeko lehenengo pausua da beraz.

Nahiz eta sobietar juristen partetik azterketa bat mereziko lukeen honek, Letoniakoak bezalako xedapenak zerbitzu hizkuntzaren alorrean ez ditu baliogabetzen, dirudienez, 1990ko Apirilaren 5an botere sobietarrak onartutako legeak. Izan ere, honela dio lege honen 13 artikulua:

"Zerbitzuetako langileek (merkatalgoa, mediku laguntza, zonaldeko garraioa, zerbitzu publikoak, hiri arteko komunikazioak eta beste moztetako zerbitzuak) derrigorrez erabili behar dute, ESSBko edo errepublika bateko legeriak bere lana betetzeko finkaturiko mugen arabera, zerbitzaturiko pertsonak aukeratu duen hizkuntza. Beren lana betetzeko betebeharren artean ez bada aurrikusi zuzentzen zaien hizkuntzaren ezagutza, ESSBko hizkuntza ofiziala erabiliko da.

Zerbitzeari uko egitea hizkuntza ez ezagutzeagatik onartezina da eta legeriaren araberrako erantzunkizunak dakartza":

Bestalde, iada aipaturiko 8 artikulua edukia ere gogoraztea komenigarria da: lege batean aipamen bereziren bat dagoen kasuetan ezik (ESSBkoa edo errepublikakoa) hizkuntzan oinarritutako diskriminazioa debekatuta dago lan eskeintzan, eta zera gainera, 9 artikulua definitu egiten duela biztanlegoaren zerbitzuan erabili beharreko hizkuntzen markoa, bere azkeneko atalak argi eta garbi dioelarik aurreko artikuluek aurrikusten ez dituzten kasuetan, errepublikek eskuhar dezaketela:

"ESSBko hiritarrek eskubidea dute beren ama-hizkuntza edo ezagutzen duten ESSBko edozein herriren hizkuntza erabiltzeko proposamen, eskaera eta kexak zuzentzerakoan gobernu erakundeei, enpresei, instituzioei eta organizazioei.

"Hiritarrek ESSBko erakundeei zuzendutako proposamen eskaera eta kexak; errepublika federatu edo autonomotik kanpo, zonalde autonomotik kanpo, distrito autonomo edo inguru nazionaletik kanpo bizi diren hiritarren proposamen, eskaera eta kexak gobernu erakundeei itzultzen zaizkienean ere, hiritarrak erabili duen hizkuntzan erantzuten dira. Hizkuntza horretan erantzutea ezinezkoa gertatzen denean, ESSBko hizkuntza ofizialean emango da erantzuna.

"Honako artikulua honen 2 artikulua dioena salbu, hiritarren proposamen, eskaera eta kexen erantzun hizkuntza errepublika federatu edo autonomoak erabakitzen du".

## 6- Alfabetoa, Hizkuntz kalitatea

Hemen aztertutako lege guztiek dauzkate H. Kloss ek (1969), nahiz agian izena ez oso egokia izan, "corpus planning" (cf: Daoust et Maurais, 1987:32) deitutakoari heltzen dioten xedapenak, batzuk besteak baino zehatzago egiten badute ere (Nota: Zenbait kasutan, jarraitu beharreko xedapen linguistikoak pertsonen izen propioei edo toponimien idazkerari bakarrik dagozkie: Estonia, Letonia, Bielorrusia).

Badira ere idazketa sistemei dagozkien xedapenak. ituniako dekretuak jarraibide zehatzagoak ematen ditu honi dagokionean eta informatika ere biltzen du.

Testu juridiko lituanierak dira hizkuntz kalitatearen aipamen ugariak eskeintzen dituztenak 1989ko Urtarrilaren 25ko "Ukaziera"ren 9 artikulua dioenez, "Lituanierako errepublikako gobernu organuek derrigorrez bermatu behar dute lituanierazko mintzamen zuzenaren prestigioa handitzea". 1989ko Otsailaren 20ko dekretuko hiru artikuluk azaltzen dute betebeharrak. Zuzentasun linguistikoari dagozkien arazoez diharduten legeria linguistikoak hain urriak izanik, interesgarria izan daiteke hiru artikulua hauek aipatzea.

"11 art- Ministeritzek, bulegoek, sobietetako komite erabakitzaileek, enpresek, komertzioek eta erakundeek lituanieraren erabilpen zuzena bermatu behar dute prestatzen dituzten txostenetan, eta behar izanez gero, hizkuntz zuzentasunezko ikastaroak antolatu(...)".

"12 art- Komunikabideetako erredakzioei eta argitaletxeei beren aldetik lituanieraren erabilpen zuzena bermatzea proposatzen zaie, baita emankizun espezializatuak eta lituanierazko hizkuntzaren arazoak kronikak egitea ere. Era beran, zuzentasun linguistikoari buruzko ikastaroak antolatuko dira erredakzioko langileentzat, beren ezagutza linguistikoaren neurketak egingo direlari".

"15 art- Hiri eta distrituetako komite erabakitzaileek idatzi publiko, errotulo, prentsa eta irratsaioen lituanieraren erabilpen zuzena bermatu behar dute".

Lexiko berrikuntza, zentzu estuago batean terminologia hedapena bezala izenda genezakeena, garrantzi handiko elementua bezala ikusi ohi da eguneratze linguistikoaren alorrean. Hala ere, harrigarria badirudi ere, 1989 eta 1990an ESSBn onartutako legeria linguistikoek ez dute ia inoiz atal honen aipamenik egiten. Bi legeak bakarrik aipatzen dute bereziki. Uzbekistango legea, gainera, oso zentzu zabalekoa da. Lituanian, 1989ko Otsailaren 20ko dekretuko 10 artikulua antzeko xedapena agertzen du baina zehatzagoa da: "Zientzien Akademiako hizkuntz eta literatura lituanieraren institutuak lituanierazko hizkuntzaren hedapenak behar duen arreta baikorra ziurtatuko du, eta baita ere zientzia eta teknikaren arloetan, lituanierazko hitzen normalkuntzaren langintzan". Estoniar dagokionean, terminologiaren inguruko aipamenik ez egotea arrazoin historikoek esplika dezakete: lexiko berrikuntza aspalditik ematen da bertan eta aurrera bere kabuz doan eginkizuna bilakatu da Johannez Aavik linguistiko handiaren lanen ondorioz.

## 7- Lege linguistikoaren ezarpena.

ESSBko legeak ez dio ezer xedapenen ezarpenari buruz.

Estonian eta Lituanian, kuadroen "ardura pertsonala"ren menpe geratzen da legearen ezarpena.

Errepublikak guztietan, Sobiet Gorenaren Presidium-aren esku geratzen da legearen ezarpenaren kontrola, zenbait kasutan Ministrari Kontseiluak edo bertako sobietek egiten badute ere. Lau kasutan (Estonia, Letonia, Moldavia eta Uzbekistanen) Sobiet Gorenaren Presidiumak edo Sobiet Gorenak berak sortutako batzorde

linguistiko baten aipamena eransten du legeak.

Aipatzekoa da, beste herrietan gertatu denaren aurka, ez dela inolako erakunderik sortu lege linguistikoak ezarri erazteko. Baldintza hauetan, pentsa daiteke testuetako neurriak benetan ezarriko ote dituzten inoiz. 1990ko Ekainan Tallinnek egoaldian bildutako informazioen arabera, Estoniako legea onartu ondorengo urte eta erdian alegia, jarraipen txikia izan duela ikus daiteke. Ondorio nagusia dirudenez zera izan da, errepublika honetako errusofonoei gutxiengoak direla jabetu eraztea, eta honek presio talde bat sortzera (Interdvizenie) bultzatu dituela (Nota: Antzeko presio taldeak beste bi errepublikatan gutxienez aurkitzen ditugu baita ere: "Inter Front" Letonian, eta "Unité" (Edinstvo) Lituanian)

Errepublika sobietarrek onartutako legeria linguistikoek agintaritzea eta borondatea nahasketa bitxia erakusten dute beraz. Agintaritzea, bizitzea publikoaren arlo gehientsuenetako hizkuntz aktibitatea arautu nahi bait dituzte legeek. Borondatea, inolako erakunderik ez bait da sortu legeria neurriak ezartzeko.

Artikulu honen helburua azkenaldi honetan Sobiet Batasunean onartutako legeria linguistikoaren ezaugarri azpimarragarrienak erakustea zen. Hemen aipatu ez ditugun hizkuntz erabilpenaren atalak ere agertzen dira testuetan: auzitegiak, hitzaldiak, bozketak txartelak, toponimia, txartelak, etiketak, kultura (zinea, komunikabideak, edizioa bereziki), ea.

Errepublika guztiek eremu linguistikoan juridikoki esku hartu behar izan dutela baldin bada ere, alofonoen (errusofonoak edo errusiar hizkuntzaren taldearekin bat egiteko joera duten pertsonak) migrazio masiboak sortutako arazoaren ondorioz izan da. Errepublika desberdinen defentsa lurraldetasunaren printzipiora jotzea da beraz. Baldintza hauetan, pentsa daiteke posible izango ote den hizkuntza hauek beren erabilpen eremu osoa eta beren prestigioa berreskuratzea iritsi berriei nazionalitate titularreko eskolara joatea inposatu gabe (galdera larriagotu egiten da lurralde nazionalik ez duten nazionalitateen kasuan edo lurraldearen estatus politikoa errepublika federatu baino maila baxuagokoa den kasuetan). Beste arazo bat ere ageri da, hizkuntza eta ekonomiaren arteko harremanena alegia: nahikoak izango al dira gaurregungo neurriak errepublika bakoitzeko nazionalitate titularren hizkuntzaren ezagutza abantaila bihurtu dadin ikuspegi ekonomiko batetik, ezinbesteko faktorea bait da hau politika linguistiko baten arrakasta iraunkorra izan dadin? Glasnost eta Perestroika prozesuen hedapen historikoa ez baditu ezerk eragozten, eta gaurregun Sobiet Batasuneko egoera linguistiko desberdinak kontutan hartzen badugu, galdera hauen erantzunak oso emankorrak gerta daitezke, eta beste herrietan urte askotan ematen ari diren "normalkuntza" linguistikoaren inguruko prozesuei buruzko ausnarketa sakona bultzatzen dezakete.